

# noaua



## 1966, 'ARTEAREN USURBIL' ABIATU ZEN URTEA

"Rikardo Arregiren oihartzuna 60 urte geroago" jardunaldiak asteburu honetan abiatuko dira / 12-15 or.

ARGAZKIA: MALUTA FILMS



NOAUA

**Erraustegiko langileek hiru eguneko grebaldia hasi dute** / 03



NOAUA

**Santueneko erdigunea berritzeko plana azalduko du Udalak datorren astean** / 16



JAKIN.EUS

**Jakin jardunaldian izena emateko epea zabaldu berri da** / 17



NOAUA

**Ostiral honetako San Ixidroko ospakizunetan, giza proba binaka** / 22



# Turkia

IRTEERA 2026ko iraila

**NOAOA**  
BIDAIAK

Noaak gidatutako talde bidaiak. Lasarte-Oriatik irtenda.

943 37 36 13 · info@noaa.eus · Hipodromo Etorbidea, 10 · Lasarte-Oria



**USURBIL**  
OPTIKA

**4** Urteko Garantia

Interes Gabeko Finantzaketa  
\*Banketxeak onartzen



**PILARIK GABEKO**  
TEKNOLOGIARIK AURRERATUENA

Entzumen azterketa  
**DOAN**

Entzun telebista eta mugikorra zure audifonoetan

**943 37 02 69**

ZUBIAURRENEA 10, USURBIL [usurbiloptika@hotmail.com](mailto:usurbiloptika@hotmail.com)



Usurbil Turismoa



## LAN DEIALDIA - TURISMO GIDARIAK

**650 Usurbil bizirik turismo eredu proiektuaren bisita gidatuak egiteko GIDARIEN lan-poltsa osatzeko deialdia.**

**Noava! K.E.ak ordukako kontratua eskaintzen du.**

**Asteburuetan ere disponibilitatea behar da. Bisitek urteko egutegia dute.**

**Betebeharrak:**

- KOMUNIKAZIORAKO GAITASUNA IZATEA. Turismo, kultura, komunikazio edo jarduera soziokulturalekiko interesa edo esperientzia kontuan hartuko da.
- EGA edo baliokidea izatea eta gazteleraz aritzeko arazorik ez izatea.
- KANPOKO HIZKUNTZAK JAKITEA. Ingelera edota frantsesaren ezagutza beharko da.

**Baloratuko dira:**

- Harremanetarako eta komunikaziorako gaitasuna.
- Ekintzailea izatea eta proiektuak sortzeko gaitasuna izatea.
- Kanpoko hizkuntzak jakitea.
- Herrigintzan esperientzia izatea.
- Turismo alorrean esperientzia izatea.
- Webguneak eta sare sozialen kudeaketan ezagutza izatea.
- Gida baimena eta autoa izatea.

**Interesatuak bidali curriculuma [elkarte@noava.eus](mailto:elkarte@noava.eus) helbidera 2026ko maiatzak 15 baino lehen.**

# Foru Aldundiarekin bildu nahi dute erraustegiko langileek

Lan-baldintza duinen aldeko borrokan dihardute Zubietako erraustegiko langileek. Hiru greba egun deituak dituzte maiatzaren 12, 19 eta 26rako. Hilaren 12an Foru Aldundiaren egoitza atarian eginiko mobilizazioko irudia duzue ondokoa. Elkarretaratzean zehar, aipatu erakundeko jasangarritasun arloko diputatu Jose Ignacio Asensioekin biltzeko eskaera erregistratu zuten. Gogoan

izan, urtebeteko etengabeko bileren eta lau hilabeteko mobilizazioen ostean deitu dituzte hiru greba egunok, "Ekobal eta Ekondakin enpresek langileen lan-baldintzak arautu eta hobetu beharko dituen enpresa-hitzarmen baterantz aurrerapausoak emateko borrodatzerik ez dutela jakinda eta GHKren eta Gipuzkoako Aldundiaren etengabeko arduragabekeria ikusita".



Maiatzaren 12an, 19an eta 26an deitu dituzte greba egunak.

## Garbigune mugikorra, Santuenean

Txokoalden izan ondoren, maiatzaren 14an Santuenera lekuz aldatuko du Udalak garbigune mugikorra eta hilaren 21ean Kalezarrera.

Bestalde, Udalak maiatzaren 24an igandea bilduko du berriz ere errefusa, bi aste behin egin ohi duen moduan.

## Txirikordaren bigarren urtemuga festa

Ugartondoko etxebizitza komunitarioak bi urte bete ditu eta ospatzera doaz. Larunbatean, maiatzaren 16an, arratsaldeko 17:00etan hasita, "txokolatada, buruhandiak, toka txapelketa, The Hastelehen's musika taldea... izango ditugu. Etorri gugana eta gozatu giro ezin hobean!".

## 1960ko bazkarian izena emateko epea itxear da

1960. urtean jaio zirenetako batzuk bazkari bat antolatu dute. Maiatzaren 23an elkartuko dira, eguerdi partean, Atxega jauregian. Izen-ematea maiatzaren 10era artekoa izango da, telefono zenbaki hauen bidez:

- Mila: 670 906 417.
- Marije: 676 855 612.

## Zaintza ekosistemaren lan topaketa

Maiatzaren 21erako antolatu dute, arratsaldeko 17:00etan Potxoenean. "Usurbilgo zaintza ekosistemako lantaldeak elkarren berri izan, iritziak trukatu eta aurrera begirako ekarpenak egiteko saioa izango da", Usurbil Herri Zaintzalearen eta Usurbilgo Udalaren esanetan.



**Argitaratzailea:**  
Noaua Kultur Elkarte  
Bordaberri 3, Eguzkitzaldea  
20.170 Usurbil  
943 360 321  
elkartea@noaua.eus

**Elkarteko lehendakaria:**  
Ugaitz Agirre.  
**Aldizkariko koordinatzailea:**  
Imanol Ubeda.  
**Kudeatzailea:**  
Alaitz Aizpurua.

**Erredakzio Batzordea:**  
Aritz Lasarte, Asier Gonzalez de San Pedro, Imanol Ubeda.  
**Diseinua:** Goienua.  
**Publizitate arduraduna:**  
Ane Ibargoien.

Tel.: 943-360 321  
publizitatea@noaua.eus  
**Banatzailea:**  
Iban Maribalar.  
**Lege Gordailua:** SS-668-96.  
**ISSN:** 1136-6818.

**Tirada:** 3.050 ale.  
**Inprimategia:**  
Antza inprimategia. Zirkuitu ibilbidea, 2. 20160 Lasarte-Oria.  
**Harremanetarako:**  
erredakzioa@noaua.eus



Gipuzkoako Foru Aldundia



Usurbilgo Udala

EUSKO JAURLARITZA

GOBIERNO VASCO



KULTURA ETA HIZKUNTZA  
POLITIKA SAILA

DEPARTAMENTO DE CULTURA  
Y POLÍTICA LINGÜÍSTICA

## IRITZIA



AINHOA AZPIROZ EIZMENDI

## In memoriam

**O**rain dela bi asteko NOAUA!n ikusi nuen Pello arrandegiaren iragarkia: lokala eta negozioa salgai jubilazioagatik. Lehendik ere bagenekien laster jubilatzea zela. Mikeli ere ez zaio asko falta. Bagenekien herriko bi arrandegiak ixtear zeudela, eta iritsi da momentua. Burdindegia ere abenduan itxiko du Juantxok. "Beherapen handiak jubilazioagatik" kartelak jarrita dauzka dendako eskaparatean.

Konturatu gabe edo konturatu, herrian urteetan irekita egon diren denak ixtera doaz. Oraingo hiru hauez gain, pixka bat begirutzen eta pentsatzen jarrita, hurrengoak zein izan daitezkeen irudikatzea ez da zaila.

Eta esango nuke denek ixteko arrazoi bera aipatzen dutela: jarraipenik eza. Ez dago negozioarekin jarraitu nahi duen inor. Eta kito. Hor bukatzen da. Akabo. *In memoriam*.

Baina herriarentzat ez da "eta kito" hutsa. Herriarrontzat ondorio batzuk ditu: Usurbilen ez da arrandegirik eta burdindegirik egongo. Beraz, beste herri batera edo zentro komertzial handi batera joan beharko dugu arrain freskoa erostera. Ez da "hur-bilago" egongo, eta kilometroen distantziaz gain, harremanaren eta tratuaeren distantzia ere pairatu beharko ditugu. Ez baitira herriko



"Herriko denda asko ixten ari dira, jarraipena zalantzan dagoelarik".

arrandegietan sortzen diren elkarrizketak sortuko. Ez baititugu Juantxorenak bezalako azalpenak jasoko. Ez baitugu entzungo "eraman lasai, probatu eta gero ekarriko didazu bueltan ez baldin bada egokia". Tiketa gorde eta aldatzeko aukera edukiko dugu, baina ez da gauza bera; ez du Juantxoren esaldiak ematen duen gertutasunik eta konfiantzarik ematen.

NOAUA!n Pello arrandegiaren iragarkiaren azpian beste iragarki bat dago eta hala dio: "Ateak zabalik dituzu Usurbilen jarduera berri bati hasiera emateko!" Udalak dirulaguntzak ematen ditu hutsik dauden lokalak alokatzeko eta proiektu edo negozio berri bati hasiera emateko. Eskertzekoa da udalaren aldetik horrelako laguntzak egotea, batez ere horren azpian dagoen helburuagatik: herriko merkataritza eta komertzioa bultzatzea, herria

"hutsik" gera ez dadin. Udalara arazoaren jakitun da.

Eta herritarrok? Arazoaren jakitun ote gara? Ba ote dugu erreleborik ezak zer dakarren? Inork ez al du lanik egin nahi herriko denda batean? Zergatik? Ordutegiagatik, arduragatik, negozioa aurrera ateratzeko zailtasun ekonomikoengatik, prestakuntza ezagatik, erosketa ohiturak aldatzen ari direlako, lan gogorra delako, inori ez zaiolako gustatzen, ez delako erakargarria...?

Galdera asko dira eta interesgarria litzateke erantzunak jakitea. Herritar eta komunitate modura, honetaz ere hitz egitea. Gai honi buruzko solasaldi ziklo bat burutzea.

**"INORK EZ AL DU LANIK EGIN NAHI HERRIKO DENDA BATEAN?"**

## IRITZIA

USURBILGO KASEKO KIDEAK

## Kale afari solidarioa, maiatzaren 19an

Hilabete honetan ere usurbildarrok Donostiako Kale Afari Solidarioak (KAS) proiektuan geure aletxoak jarriko dugu. Maiatzaren 19an, datorren asteartean, beste afari bat prestatuko dugu. Oraingo honetan ere ez dugu janari-bilketarik egiteko beharrik, urte amaiera aldera jasotako guztiari esker. Aupa zuek, Usurbil!

Proiektuan parte hartu nahi izanez geroz idatzi edo deitu telefono zenbaki honetara: 688 85 08 24.

## "Goazen kalera" herri erdigunean

Hurrengo ibilaldi osasuntsua maiatzaren 19an izango da, asteartearekin. Herri erdigunean barrena egingo da eta Egurtzegi zeharkatuko du. Usurbilgo frontoitik abiatuko da 10:30ean. Amaieran, OLHko ikasleek prestatutako haiketako dastatu ahalko da. Herritar orok parte har dezake, aurrez izena eman beharrik gabe.

## 1956koak, Larrun aldera egunpasa

Maiatzaren 26an, goizeko 8:00etan abiatuko da autobusa. Larrun eta inguruak bisitatuko dituzte. Izena emateko azken eguna, maiatzak 18. 687 706 363 / 677 342 793.

**Antxeta**  
TABERNA  
egunero irekitzen dugu!  
·eguneko menua ·asteburuko menua  
·oilasko erreak, ogitartekoak, raziok...  
·paellak enkarguz!  
943 54 43 12 Zubiaurrena 6, Usurbil.

**txirriStra**  
TABERNA  
·PLATER KONBINATUAK  
·BOKATAK ·PINTXOAK  
Kontseju zaharra, 13 Tel 943 36 04 66

**Patxi**  
PARRILLAN  
JATEA  
·bazkariak EGUNERO  
·afariak ostirala eta larunbata  
© 943 362725 · © 688 690 361

# Mendi orientazioari buruzko formazioa emakumeentzat

Patri Espinar Labianek elebitan eskainiko du eta izena eman nahiz informazio gehiagorako Emakumeen Etxera jo behar da.

Ikastaroa asteburu honetan, maiatzaren 15etik 17ra izango da. Ostiraleko saioa 17:00-20:00 artean eskainiko da eta larunbat zein igande goizetakoak, 9:00-14:00 artean. Ikastaroaren helburua da era seguru eta autonomoan jarduteko beharrezko baliabideak eskuratzea, "horretarako naturaren interpretazioa, maparen irakurketa eta iparrorratza erabiltzen ikasteko ezagutza teoriko-praktikoak ahalbidetuz".



Patri Espinarrek gidatuko du saioa.

tokoloari lotutako formazio bilera antolatu dute ostegun honetan, maiatzaren 14an, 17:30ean Potxoenean. Sortzen elkarteko Sheila Melconek bideratuko du saioa. Informazio gehiago, Emakumeen Etxean jaso ahalko da.

## Jaien inguruko protokoloa

Jai eta aisialdi guneetan eraso matxistei aurre egiteko pro-

# KzGunera datozen ikastaroak

Maiatzean arratsalde, 16:00-20:00 artean irekiko dute.

- Maiatzak 18-29, 16:00-18:00 "Oinarrizko Interneta. Nabigatzen eta posta elektronikokoak bidaltzen ikasi".
- Ekainak 1-9, 09:00-11:00 "Smartphoneak eta tabletak. Android gailua erabiltzen ikasi".
- Ekainak 10-12, 09:00-11:00 "WhatsApp. Bat-bateko me-zularitza zure smartphonean".

• Ekainak 15-16, 09:00-11:00 "Argazkiei ukituak eman zure smartphonearekin".

• Ekainak 17-29, 09:00-11:00 "Google aplikazioak zure smartphonean".

• Ekainak 30, 09:00-11:00 "BakQ ziurtagiria".

## Informazio gehiago:

943 023 684

tutor.usurbil@kzgunea.net

# Herriko jaiei begirako zenbait deialdi

## Maiatzaren 13ra arte

• Bertsio Gauean izen-emateko aukera eskaini du Xauxar Txosna Batzordeak.

## Maiatzaren 19ra arte

• Txupinazorako hautagaiak. Proposamenak emailez (kultura@usurbil.eus) edo udaletxean,

liburutegian, kiroldegian eta Potxoenean jarritako kutxetan.

• Egitaraua diseinatzeko lehia-keta: norbanakoek zein taldeek aruzek ditzakete lanok.

Oinarriak bideotatik eskura ditzakezue:

kultura@usurbil.eus

943 371 999

# 'Xeibrekeriak', Arantxa Manterolak bildutakoak

## Arantxa "Patri"

Gerra bukatu eta laster, 'Servicio Social' izenekoa (SS) bete behar izaten zuten neskek, esku-lanak eginez eta 'Formación del Espíritu Nacional' zelakoa ikasiz.

Hor joan zaigu Arantxa "Patri" Donostiara etsamina egitera:

-¿Qué quiere decir SS?  
-San Sebastian!  
-¿Quiénes fueron los Reyes Católicos?  
-Melchor, Gaspar y Baltasar.

Bere lagunek diotenez, ditzosozko 'Servicio Social' hori pasatzea lortu omen zuen, hala ere, Arantxak.


## Juana Joxepa Portu

Martintxiki-enean (Paris etxe ondoan) bizitutakoa dugu Juana Joxepa, Ameriketatik etorrita eta gero. Han aberastuko zelakoan joango zitzaigun hau ere baina, beste asko eta asko bezala, urritasunean bizi

behar izan zuen Euskal Herrira itzulita gero ere.

Hala eta guztiz ere, kontuak garbi, eta zorrik nahi ez eta honako esaldia esateko ohitura omen zuen:

Juana Joxepa Portu: ez eman eta ez hartu!



Unai Gaztelumendiren komiki-tira, TOKIKOMeko hainbat hedabideren eskutik.



Miren Iturburu eta Laura Fernandez, Matia Fundazioko etika eta giza eskubideen batzordeetako kideak.

# "Gatazkak sortzean geratu eta pentsatu beharra dugu"

**MIREN ITURBURU ETA LAURA FERNANDEZ** MATIA FUNDAZIOA

Matia Fundazioko etika eta giza eskubideen batzordeko bi kideok alor hauei buruzko hitzaldiak eskainiko dituzte herritar ororentzat Egurtzegin, pertsonen zaintza erdigunean jarrita.

## ARITZ LASARTE

**Nolatan antolatu dituzue jardunaldiok?**

**Miren Iturburu:** Giza eskubideen errespetua eta sustapena bermatzeko, erabakiak, laguntzak, jardun profesionalak eta pertsonen bizitza, konpromiso etikoek eta jarrera enpatikoek gidatu behar dituzte, tratu duina eta pertsonalizatua eman ahal izateko eta pertsonen bizi-kalitatea hobetzeko. Gai hauean oinarrituz, Matia Fundaziotik, hitzaldi hauek antolatu ditugu. Horien bidez, aurrez aipatutako gaiez jabetzea eta giza eskubide horiek urratzen diren egoerak identifikatzea da helburua. Lehenbizi, giza eskubideen gaia jorratzen da, gero

etikarena. Komunitateari zuzenduriko saioak dira.

**Laura Fernandez:** Giza eskubideen gaia oinarritzko galdera batekin lantzen hasten gara; zer diren giza eskubideak. Isiltasuna eragin ohi duen galdera da, ez du erantzun errazik. Eskubideen konkisten ibilbidean murgiltzen gara, akordio bat egonik zergatik diren hain zailak betearaztea. Giza eskubideok eguneroko bizimoduan gauzatzeari buruz hitz egiten dugu, giza eskubideek gure eguneroko bizimoduan nola lur hartzen duten eta nola hel gaitzkeen eskubideok urratzera.

**Ikuspegi integraletik jardun nahi duzue.**

**L.F.:** Eskubideak bermatzeaz jardun nahi dugu, praktika zehatz batean eskubideak urratzen egon gaitzkeela jabetzeaz. Helburu batzuekin goaz, baina elkar entzuteko espazioak dira. Pertsonak gogo asko izaten dute hitz egiteko, bere egunerokoa, bizipenak, erronkak partekatzeke. Laguntzen ditugun pertsona zaurgarrien eskubideen bermatzaileak gara, behatu beharreko gaia da giza eskubideok ez urratzeko. Hausnarketa oso interesgarriak azaleratzen dira.

**Zergatik sustatu nahi duzue komunitatearen parte hartzea?**

**M.I.:** Komunitateak zaintzailea izan behar du, denon ardura da. Elkar zaintzearen

arduradunak gara. Hor badaude oinarri batzuk ezagutu beharrekoak, are gehiago, egungo mundu nahasi honetan. Goazen mantsoago pentsatzera. Etikari eskainitako saioa hortik bideratuko dugu. Gatazka etikoak, baloreen gatazkak direnak identifikatzen jakitea nahi dugu, giza eskubideei oso lotuak daudenak. Izan ere, baloreek askotan talka egiten dute eta denak aldi berean ezin dira bermatu. Etika, erabaki ahalik eta onena, zuhur, zentzuzkoena hartzean oinarritzen da, baldintzak eta ondorioak aurreikusita.

**Zubiak eraikitzen ditu gatazken aurrean.**

**M.I.:** Matia Fundazioko etika batzordean egoera bat aztertzen da, ahalik eta informazio gehien jasotzen dugu, gero jokoan dauden baloreak ebaluatzen ditugu eta erabaki onena hartzen da. Hori guztia modu deliberatuan egiten da, kolektiboki, mantsu, zuhurtziaz erabakitzeko. Etika eguneroko bizimoduan aplikatzen da, uneoro erabakitzen ari gara. Horregatik, baloreen arteko gatazkak sortzean geratu eta pentsatu beharra dugu.

**Gatazkak zenbaezinak izan daitezke. Baina izango dira errepikakorrak diren gaiak, erabakitze eskubideari lotutakoa adibidez.**

**L.F.:** Zer ulertzen dugu erabakitze eskubideaz? Pertsonen erabakitze eskubideetan laguntzerantz jotzen goaz, ez pertsonak ordezkatzertantz. Kezka eragiten duen gaia da, zer laguntza behar duen pertsona batek erabakitzeko, nola erabaki bakoitzak zer laguntza

**"GIZA ESKUBIDEAK URRATZEN DIREN EGOERAK IDENTIFIKATZEA DA HITZALDION HELBURUA"**

behar duen... Hainbat gai egon daitezke, egunerokoan hausnarketa etikora eraman gaitzaketenak.

**M.I.:** Gaitasun hori, demenzia edo buruko gaitzen bat duten kasuetan adibidez, zaila da argi izatea, ez dagoenean argi pertsona bat erabakitzen ari dela guztiz ondorioen jakitun izan gabe. Horregatik, deliberatu beharra izaten da. Garrantzitsuena da inoiz muturreko erabakirik ez hartzea, tarteko bidea aurkitzea. Normalean, pertsonen desioak eta lehentasunak kontuan izanda, gatazka asko leuntzen dira. Horretan dihardugu Matia eta Urkoa fundazioen etika batzordean. Etengabe hezten gabilta.

**L.F.:** Horretarako garrantzitsua da denbora hartzea, aukerak aztertu eta gatazka konponatzeko. Matiaren giza eskubideen batzordean eskubideon urraketak aztertzen ditugu, nola konpondu, beharrezkoa bada erakundeetara jo, juri-dikoki aztertu...

#### **Prozesuotan sarritan ager daitezkeen hitz gakoak, oreka, mugak dira?**

**M.I.:** Zuhurtzia eta ardura.

**L.F.:** Giza eskubideez ari garenean, eskubideak neurtzeaz hitz egiten da, haien arteko orekaz. Bi eskubide urratzen badira, zein litzatekeen kalte-tuena edota zeintzuk diren jokoan dauden eskubideak erabaki bat hartzerakoan. Horregatik, askotan zalantzan jarri behar dira, eztabaidatu beharra dago. Izan ere, batzuetan pertsona bat babes-teko asmoz, bere eskubideak balio gabetzen ditugu, eta hor bere duintasuna ezabatzen ari gara; nik badakit zer den onena zuretzat, nik zure orde erabakitzen dut esaldia aplikatzen da.

**Azkenean, babestu beharreko pertsona kontuan hartu gabe.**

**L.F.:** Pertsona batek laguntza behar duenean, zahartzaroan edo aniztasun funtzionalare-



Laura Fernandez eta Miren Iturburu izango dira Matia Fundazioaren Egurtzegiko hitzaldien gidariak.

kin, eskubideak galtzen goazela dirudi. Baina laguntza jasotzeak ez du ekarri behar balore edo eskubide galerarik. Horregatik, komunitateak denontzat eraiki behar dira eta bertan, etikak eta giza eskubideek presente egon behar dute.

#### **Begirada aldatzen jarraitzea eskatzen digu horrek guztiak.**

**L.F.:** Laguntza behar izateak murritzeta dakarrela, ikuspegi hori aldatu behar da. Interdependenteak gara, elkarren beharra dugu.

**M.I.:** Ikuspegia eraldatzen doa. Orain eskubideak aldarrikatzen ditugu. Zergatik da zaila elkar ulertzea? Pluraltasuna dagoelako, iritzia ematen dugulako. Desberdinak gara.

#### **Eskubideen aldarrikapena ahalik eta egokien nola kudeatu, hor dago gakoa ezta?**

### **"BATZUETAN, PERTSONA BAT BABESTEKO BERE ESKUBIDEAK BALIO GABETZEN DITUGU"**

**M.I.:** Hautzarotik ikasi behar gogoratu hitz egiten, deliberatzen, argudiatzen.

**L.F.:** Pentsamendu kritikoa lantzen, dibertsitatea baloratzen. Egun, arriskua dago, giza eskubideak bermatuak ditugula jakintzat ematekoa. Baina garrantzitsua da adi egotea, defendatzea, gogoratzea, hauskorak baitira. Horregatik, babestu beharrak daude, bereziki zailtasun gehien dituzten pertsonen kasuan, horien zaintzaileak izan behar dugu. Defendatzen ez den eskubidea galdu egiten dela diote.

#### **Komunitate zaintzaileagoen erakuntzan nola goaz, aurrerabidean?**

**M.I.:** Gipuzkoan bultzada handia izaten ari da Foru Aldundiaren eta udalen partetik. Beharra dagoela ikusten da. Zaintza ekosistemak garatzeko proiektu dezente daude hainbat udalerrietan. Usurbil

da aitzindarietakoa, begirada oso zaintzailea duena, eredu-garria izaten ari dena beste udalerrietzat.

#### **Zer adierazi nahiko zeniekete hitzaldiotan parte hartu nahi dutenei?**

**L.F.:** Usurbilen Eguneko Zentrotik heldu zen hitzaldiok egiteko eskaera. Udalerri zaintzaile gisa, nondik jo nahi duen ikusi eta gaiotan hausnartu eta sakondu nahi duen edonor gertura daiteke. Ez dira saio teknikoak izango, ez da jakintza zehatzik behar. Etika, giza eskubideak eguneroko bizimoduan ditugu. Nola komunikatu, tratatu, bizi eta elkar-bizi garen, horri lotuak daude.

#### **"Etika eta giza eskubideak pertsonen zaintzan", Egurtze gin**

**Maiatzak 22: 10:30-13:00** Giza eskubideak. Hizlaria: Laura Fernandez, Matia Institutua.

**Maiatzak 29: 10:00-13:00** Etika. Hizlaria: Miren Iturburu, Matia Institutua.

**Izen-ematea:** [labur.eus/ya-giypih](http://labur.eus/ya-giypih)

**Informazioa:** 688 695 082.

**Antolatzailea:** Matia.



Maiatzaren 8ko "Bat Egin Eguna" ekimenaren harira, Usurbilgo EH Bilduren ekitaldira joandakoek ateratako argazkia.

# "Komunitate trinko, kritiko eta aktiboa zarete"

Deitua zuten Bat Egin Egunaren baitan, Puntapax 6ko Bilgunea inauguratu eta otsaila aldetik jardunean ari den mahai politiko eraberritua aurkeztu zuen Usurbilgo EH Bilduk maiatzaren 8an. Koalizioaren bueltako komunitateko kideak elkartu zituen hitzorduak.

## ARITZ LASARTE

Mahai politiko eraberrituriko arduradun politiko Manex Zubiria Elexpek adierazi moduan, "esperientzia eta gatzetasuna" uztartu nahi izan dituzte, iazko otsailean EH Bilduk borobildutako hirugarren kongresuaren testuinguruan kokatu beharreko mahai politiko eraberritua. "EH Bilduk berregituraketa oso bat egitearekin batera, guk ere uste genuen Usurbilen berregituraketa bat egin behar genuela, gaur ditugun erronkei erantzuteko". Ezinbestekotzat jotzen zuten, "udal gobernuaren, mahai politikoaren eta komunitatearen arteko txirikordatze bat eman behar genuela eta horri erantzutera

dator proposamen hau". EH Bilduren proiektua "inoiz baino indartsuago eta biziago" dagoela ziurtatu zuen, baina komunitatea indartzen segitzeko beharra nabarmendu zuen, "erronkak ez direlako txikiak". Hona hemen, mahai politiko berriko kideak eta bakoitzak izango duen ardurara: Manex Zubiria Elexpe (arduradun politikoa), Oihan Errekondo Altuna (Sortuko

**"KOMUNITATEA  
INDARTZEN SEGITU  
BEHARRA  
NABARMENDU  
ZUTEN"**

herriko koordinatzailea), Agurtzane Solaberrieta Mesa (udal taldeko ordezkaria), Aritz Aranburu Gorrotxategi (EH Bilduko komunikazio arduraduna), Aitor Zabaleta Eizagirre (herriko gazte ordezkaria), Ander Mangas Sueskun (Sortuko diruzaina eta Aitzagako arduraduna), Xuban Zubiria Elexpe eta Amaia Añorga Menterola (EH Bilduko diruzainak), Lur Etxeberria Gurrutxaga

**"2023KO  
HAUTESKUNDEETAN  
LORTUTAKO  
EMAITZAK HOBETU  
NAHI DITUGU"**

(etxebizitza lan-ildoak), Luken Arkarazo Silva (Arrobitxulo/kultura lan-ildoak), Kris Bernal Etxeberria (feminismoa lan-ildoak), Aritz Aranburu Gorrotxategi (ekonomia sozial eraldatzailea). Aurkezpenaren atarian, eskertza helarazi nahi izan zien Zubiriakegungo nahiz aurreko kideei.


## "2023an lortutako emaitzak hobetu nahi ditugu"

Eskertza horrekin bat egin zuen Gipuzkoako EH Bilduren arduradun politiko Nekane Zinkunegi Barandiaranek. Koalizioaren hirugarren kongresuaren bueltan, tokiko egituratzea indartzeko apustuaren testuinguruan kokatu zuen ekitaldia eta ikasturte honetan, herrialdean barrena egiten ari diren beste hainbat mahai politiko osatzea, "garbi dugulako hegemonia soziopolitiko lehiatzen ari garen honetan, gure indarrak ezin ditugula erakundeetan soilik eduki, hankak kalean edukitzen jarraitu behar dugula eta aukerak dauden toki guztietan, halako espazio fisikoak ere irekitzen jarraitu behar dugula". Usurbilen kasuan, Zinkunegik zioen, "saretutako herri bat duzue, udalgintzan urteetako esperientzia, proiektu eredugarriak" eta bere esanetan, "oso garbi izan duzue herrigintzan zerbaitek funtzionatuko badu, herritarrekin elkarlanean lanean aritu behar dela, eta hor, komunitate trinko, kritiko eta aktiboa zarete".

Ildo horretan, bilgunea tresna gaketat jo zuen "bizitzaz eta mugimenduz betetzea", baita bertan "nahiz hemendik herrirako egingo den lana". 2023tik Gipuzkoan lehen indarra den koalizioak urteotan izandako ibilbidea nabarmendu zuen. Izan ere, "ezkerreko subiranismoak lortu du hegemoniaren lehian bete-betea sartzeari". Datozen hauteskunde deialdiei begira, "2023an lortutako emaitzak hobetu nahi ditugu", adierazi zuen.



Iñurriek Sutegiko oholta hartu zuten uea.



Nahia Intxausti, emanaldiko une batean.

## Iñurrien bilkura Sutegin

Liburua ikus-entzunezko emanaldian bilakatua. Iñurri elkarteak maiatzaren 10ean Sutegiko auditorioan antola-

turiko ekitaldia duzue goiko irudiotan. Nahia Intxausti iñurriak bizitako minbizi prozesua islatu zuen "Zainetatik

zilarra" liburuan. Hura oinarri hartuta, Iñurriko kideek argitalpeneko hainbat poema irakurri zituzten joan den igandean eta Brilet taldeak musika jarri zien poema horietako batzuei.

Ekainean izango ditu hurrengo hitzorduak Usurbilen egoitza duen Iñurri elkarteak;

mural margoketa eta aurretik, "Komunitatetik, Heriotzaz" izeneko zikloan parte hartuko du hilaren 11n. Eider Casanova iñurriak gidatu eta Eli Bergaretxe, Ana Jimenez eta Beñat Iraola hizlari gisa parte hartuko duten saioan, "denak heriotzaz garden hitz egiten" ariko dira.



Jurgi Ekiza, maiatzaren 8ko Aginagako kontzertuan.

## Jurgi Ekizaren "Argitzala", Eliza Zaharra Kulturgunean

Willis Drummond-eko kantari eta gitarrista Jurgi Ekizak "Argitzala" lana aurkeztu zuen maiatzaren 8an Aginagako Eliza Zaharra Kulturgunean,

"Züek Heben" erakusketarekin batera, aipatu bilguneak bi Euskal Herrien arteko muga hausteko antolaturiko Kultur Astearen baitan.



Mireia Delgadok aste hasieran eskaintako ipuin kontaketa saioa.

## Uda aurreko azken zikloari ekin dio Sutegi udal liburutegiak

Mireia Delgadok aste hasieran LH 1-3 artekoentzat zuzenduriko ipuin kontaketa saioaren ondotik, uda aurreko azken ekinzen zikloan sartu da Su-

tegi udal liburutegia. Hurrengo hitzordua, maiatzaren 23an, 11:30etan izango da; Ana Merinok bideraturiko idazketa tailerra gaztelaniaz.

**BORDATXO**  
taberna  
**Pintxo Bereziak**  
943 37 10 42

**EGIN ZAITEZ BAZKIDE!**  
[www.noaua.eus](http://www.noaua.eus)

**Okindegia-Gozotegia**  
**LABE-GOXO**

**URDAINTZI S.L.**  
Eraikuntzak  
[urdaintzi@euskalnet.net](mailto:urdaintzi@euskalnet.net)  
IT-ak egiten dira  
649 43 54 75  
943 36 72 64  
**ERAIKUNTZAK-OBRAK-ERREFORMAK**



Eskuzaitzetako espetxeak Martutenekoa ordezkatzeko du. ARGAZKIA: EITB

# Zubietako espetxea, Eusko Jaurlaritzaren esku

Zubietako espetxea irekizetik hurbilago daude. Norabide horretan, beste urrats bat eman dute azken egunotan. Izan ere, gune honen kudeaketaren eskualdatzea gauzatu zuen maiatzaren 4an. Hasteko, eskumena Eusko Jaurlaritzaren esku uztea onartu zuen apirilaren 28an, Espainiako Gobernuaren Ministroen Kontseiluak. Eskualdatze hori gauzatu zela jakinarazi zuen, hilaren 4ko Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkariak.

## ARITZ LASARTE

Argitalpen horrek ohartarazi zuen, "Gipuzkoako espetxea (Donostia) eraikitzen amaitu eta prest dagoela espetxe-zerbitzuari lotuta jardunean has-teko, erabaki bat hartu behar da espetxe-arloko estatu-legeak betearazteko esparruan Euskal Autonomia Erkidegoari eskualdatu zitzaizkion Estatuko Administrazioaren eginkizun eta zerbitzuei atxikitako ondare-baliabideak aldatzeko".

Testuinguru horretan, EHAA-k azaldu moduan, "erabaki honetan, ondoriorik gabe utziko da Donostiako espetxea dagoen ondasun higiezinaren eskualdatzea (Martutene kalea 1, Donostia), eta, jarraian, eskualdatu egingo da Gipuzkoako espetxea (Donostia) dagoen ondasun higiezin". Bide horretan, "entrega- eta harre-

ra-aktak hiru hilabeteko epean sinatuko dira".

Zubietan kokatuko dena eskualdatuta, egun, Martutenen kokaturiko espetxe zaharraren titulartasuna galduko du Eusko Jaurlaritzak ekainaren 24an. "Ekainaren 24an ondoriorik gabe geratuko da ekainaren 29ko 474/2021 Errege Dekretuaren bidez onartu zen eskualdatzea, hau da, Donostiako espetxea (Donostia, Gipuzkoa) dagoen higiezin Euskal Autonomia Erkidegoari eskualdatzeko erabakia".

**Irekiera, ekainerako aurreikusia**  
Zubietako Eskuzaitzetan kokatuko da laster irekiko duten espetxe berria, bertako industrialdean. 284.255 metro karratuko azalera izango du. Urte luzez noiz ireki asmo zuten iragarri eta atzeratzen joan

ostean, badirudi, beranduenez, ekainean ireki dezaketela Eskuzaitzetako kartzela. Hala aurreikusi zuen azkenekoz otsailean, Eusko Jaurlaritzak. Zubietakoa irekita, Martuteneko kartzela eraitsi asmo dute hurrengo urtean, bertan, gerora, 400 etxebizitza eraikitzeko.

## Mubil hazten

Espetxetik hurbil, Zubietako Eskuzaitzetan bertan kokaturiko Mubil Center, mugikortasun jasangarriaren eta adimendunaren poloa ireki zutenetik urtea bete da. Foru Aldundiaren esanetan, urtebete honetan, "aurreikuspen guztiak gaintu ditu. Urte honetan, enpresen, zentro teknologikoen eta mugikortasun jasangarriaren eta adimendunaren esparruko eragileen ekosistema finkatu

da eta mugikortasunari lotutako eraldaketan, Gipuzkoa Europako erreferente gisa kokatzeko helburuan aurrera egiten ari gara".

Hazten jarraitzeko asmotan direla iragarri du Ahaldun Nagusi Eider Mendozak. "Mubilek ere hazkunde horretan aurrera egingo du, industriaren zerbitzurako eta ekonomia berriaren sorkuntzarako duen ahalmen eraldatzailea handituko duen eraikin batekin. Izan ere, hori da lortu nahi dugun helburu bikoitza: batetik, mugikortasunaren esparruko enpresa txiki eta ertainei laguntzea, eta, bestetik, mugikortasun jasangarri, adimendun eta konektatuari lotutako industria berriaren sorrera sustatzea".

Egungo Mubil Centeren ondoan, "Mubil Business Center" izeneko 4.500 m<sup>2</sup>-ko eraikina egiten hastekoak dira urte amaieran, "hazkunde-fasean dauden mugikortasun jasangarri eta adimenduneko ekosistemako enpresei zuzendua. Bulego-espazioak, I+G laborategiak eta testak eta prototipoak egiteko gune teknikoak izango ditu". 7,5 milioi euroko inbertsio horrekin batera, "irailetik aurrera 6.683 m<sup>2</sup> eta 3.336 m<sup>2</sup>-ko bi lurzati" eskuragarri jarri asmo dituzte, "enpresa berriak erakartzea eta Mubilen ingurunean mugikortasun jasangarri eta adimendunarekin lotutako proiektu berritzaile berrien ezarpena" sustatzeko. Horrez gain, eremu berean, "datozen asteetan, gainera, Vicomtechen eta CIDETECen mugikortasun-zentro berriak inauguratuko dira, eta horrek beste bultzada bat emango dio ekosistemari".

**"ZUBIETAN  
KOKATUKO DA  
ESPETXE BERRIA,  
ESKUZAITZETA  
INDUSTRIALDEAN"**



IZT kooperatibak IKT zerbitzuak eskaintzen ditu eta Beterri-Saretuz kooperatiben bilgunean hartzen du parte.

## IZT: "Beterri Saretzen-ek beste modu batean lan egiteko aukera ematen digu"

Juani Lizaso IZT kooperatibako kudeaketa zuzendaria da. Sorreratik erabaki zuten kooperatiba izaera ematea euren enpresari. Beterri Saretuz-eko kide da IZT, besteak beste, "eskualdeko beste eragile batzuekin sinergiak sortzeko aukerak eskaintzen dizkigulako".

### Zein da IZT-ren jarduna eta zer egiten duzue egunerokoan?

IZT-k sorreratik IKT zerbitzuak eskaintzen ditu Euskal Herriko enpresetan. Hiru zerbitzu nagusi ditugu. Lehenengoa, sistemen diseinua, inplantazioa eta mantenua da; hau da, sareak, zerbitzariak, ordenagailuak eta horrekin guztiarekin zerikusia daukatena. Bigarrenik *cloud* zerbitzuak ditugu, eta hirugarrenik, programazioa.

Lehena da gure zerbitzu nagusia eta gainontzeko biak, bezeroei zerbitzu integralago bat eskaintzeko egiten ditugu.

### Nola islatzen duzue Ekonomia Sozial Eraldatzailea zuen egunerokoan?

Sorreratik erabaki genuen kooperatiba izaera ematea enpresari, batez ere, erabaki gunea, gobernantza parte hartzailea eta horizontala izatea

nahi genuelako. Ez genuen irabaziei edo diruari soilik begiratu zion enpresa bat izan nahi, pertsonak erdigunean jarri, pertsonen duintasuna bilatu eta eredu partehartzaileak sustatzea enpresan. Hori egiten saiatzen gara, kooperatiba izateaz gain, sinisten dugu kooperatiban, sinisten dugu erabakigunea batzaren egotea eta egunerokotasunean sortzen diren erabaki garrantzitsuak denon artean hartzen, baita ardurak denon artean banatzen ere. Ez da erraza, baina hori bilatzen dugu eta hori sustatzen dugu.

### Zergatik erabaki zenuten Beterri Saretuz-en parte hartzea?

Batez ere aukera ematen zigulako merkatu lehiakor honetan burua altxa eta gure balioak defendatzen dituzten enpresa edo eragileekin erron-

kak jartzeko, amankomunean ditugun arazo eta desioak lantzeko, eta ez gaudela hain bakarrik sentitzeko. Badaude eragile gehiago antzeko kezka eta erronkak dituztenak. Oso aberasgarria da, elkarlanerako eta beste modu batean lan egiteko aukera ematen digulako.

### Zer ematen dizue sareak zuei?

Gogoetarako leku bat ematen digu eta asko baloratzen dugu hori. Gai eta arazo komunei heltzeko beste modu bat eta beste irizpide bat ematen digulako. Horrez gain, Beterri-Buruntza eskualdean kokatuak egonik, eskualdeko beste eragileekin sinergiak sortzeko aukera ematen digu.

### Eta zuek zer ematen diozue sareari?

Nahi genukeena baino gutxiago. Gure ikuspuntuaz gain,

gure esperientzia, gure zerbitzuak, elkarlanerako gure prestutasuna... Hori izango litzateke batez ere guk eskaintzen duguna.

### Eta etorkizunera begira, zein aukera edo erronka dituzue eskualdean?

Gizarteak identifikatuak dituen erronken antzekoak dira gureak: berdintasuna zentzu guztietan landu (generoa, arraza, etorkinen integrazioa), pertsonen arteko soldata arrakala nola arindu, ingurumena eta energiaren inguruko kezka... Erronka horiek guztiak mahai gainean ditugu, baina niri pertsonalki momentu honetan erronka oso handi bat iruditzen zait demostratzea Ekonomia Sozial Eraldatzailearen ikuspuntutik nola izan gaitzekoen lehiakorrek merkatu honetan; hau da, balioak landuz eskaini ditzakegula beste enpresa ereduak eskaintzen dituzten zerbitzu egokiak eta besteak bezain lehiakorrek eta kalitate onekoak.

Askotan, Ekonomia Sozial Eraldatzailean bakarrik zentratzen gara gure baloreak enpresetan txertatzeaz. Baina ezin dugu inoiz ahaztu enpresak garela, eta gainera, pertsonen duintasuna bermatzeko soldata duinak bermatu behar direla, eta horretarako, ezinbestekoa da lehiakorrek izatea.

### Nola lortu daiteke hori?

Guk IZT-n hasieratik dugu barne manifestu bat balio batzuk identifikatuak dituen. Horietako bat lehia justua egitea da; hau da, espekulaziorik ez egitea, zerbitzuei eta prezioei balio justu bat ematea bai goitik, bai behetik.

Egunerokotasunean gauza txiki pilo bat daude. Hurbildu behar zara merkatuak ezartzen dituen parametro horietara, baina beti ere ahaztu gabe kooperatiba izaera, gure balioak zein diren eta abar.

# "Maialenekin egingo dudan saioa bidaia baten modukoa izango da"

JAKOBA ERREKONDO PAISAJISTA, AGRONOMOA ETA DIBULGATZAILEA

Rikardo Arregiren oihartzuna gogora ekartzeko hainbat ekitaldi egingo dira egunotan. Jakoba Errekondok eta Maialen Lujanbiok maiatzaren 22an eskainiko duten bertso-saio ibiltarian, Udarregi bertsolarian, berak asmatutako alfabetoan eta garai bateko Usurbilen jarriko dute arreta.

## IMANOL UBEDA

**"Euskararen eta artearen Usurbil. Rikardo Arregiren oihartzuna 60 urte geroago" ekitaldi zikloa egingo da datozen egunetan. Rikardo Arregi kazetaritza saria jaso zenuenean aipatu zenuen moduan, bere eraginez hasi zineten etxeok euskaraz alfabetatzen, ezta?**

Rikardo Arregik herri askotan lagundu zuen orduko gau-eskolak antolatzen. Orduan gau-eskolak zirenak, gauegun-go AEK, IKA... euskaltegieta bilakatu dira.

Gaur egun, euskaltegiak euskara ikasteko tokiak dira. Baina garai hartan behar zena zen jendea alfabetatzea. Gau-eskola horietan hasi zen jendea alfabetatzen, euskaraz alfabetatzen. Euskaldunak ziren, baina alfabetatu gabeak. Eta garai hartan alfabetatze prozesu indartsu bat jarri zen martxan. Gauez izaten ziren eskolak, jendearen lanorduetatik kanpo. Hara, batez ere, 30-40 urteko jendea joaten zen, jende gaztea, garai hartako jende militantea eta abar. Gure etxean, hiru anai-arreba zaharrenak, erdarazko eskolara joaten ginen. Gure garaian, mojen eskola eta erdarazko eskola zeuden Usurbilen, La Salleko anaiena. Ikastola kimu txiki bat zen, eskola txiki bat, eta bi anaia gazteenak han hasita zeuden jada. Orduan etxeko anai-arreba zaharrenak eta herriko beste umeren bat hasi ginen gau-eskola horietan alfabetatzen. Imajinatu gure-

tzat zer izan zen hura. Ez dakit zenbat urte edukiko genituen orduan. 7, 8, 9 urte? Hara joaten ginen, jende helduarekin batera. Guretzako hura izan zen oso inportantea. Gure euskararekiko jarrera alfabetatze haren ondorio da.

**Sari bat jasotzea beti da berezia, aparta, baina Rikardo Arregi kazetaritza sariko ohorezko mugaria jasotzea are garrantzitsuagoa izango da zure kasuan, ezta? Zure haurtzaroko bultzada hura aldarrikatzeko modu bat izan zen.**

Eta ez hori bakarrik. Rikardo Arregik Usurbilen eskaini zuen diskurtsoa ere hor dago. Erdi galduta egon da, inork ez dio heldu eta ez dago inon behar den bezala jasoa. Eta diskurtso horrek, gaur egun ere oso bizirik dagoen eztabaida jasotzen du.

Iaz, Rikardo Arregi kazetaritza sariko antolatzaileekin eta epaimahaikideekin hitzketan, esan nien Rikardo Arregiren hitzaldiaren 60. urteurrena beteko dela aurten. Ez dakit Andoainen zer bait egingo ote duten. Usurbilgo uda-

**"RIKARDO ARREGIK HERRI ASKOTAN LAGUNDU ZUEN ORDUKO GAU-ESKOLAK ANTOLATZEN"**

letxekoei aipatu izan diet, mereziko lukeela bi herrien artean zer bait egitea.

**Maiatzaren 22an 'Zutik' filma eskainiko dute Sutegin. Rikardo Arregiren inguruan osatutako pelikula labur bat da. Eta proiektioaren ondoren, mahainguru bat egingo da. Arratsaldea borobiltzeko, Maialen Lujanbiorekin batera saio bat eskainiko duzu Remigio Mendibururen eskulturaren aurrean. Ez da solasaldi bat izango, ez da bertso-saio bat izango, baina bietatik izango du. Nola definituko zenuke Maialenekin egingo duzun saioa?**

Nik definituko nuke bidaia bat bezala. Bidaia bat egiten duzunean, perspektiba asko daukazu. Zer jango dut, non ibiliko naiz, zer ikusiko dut, ze ikasiko dut... Ba maiatzaren 22koa antzeko zer bait izango da. Rikardo Arregi aitzakia bat izango da. Duela 60 urte Usurbilen eskaini zuen diskurtsoa oso inportantea da, argitaratu beharko litzatekeena. Baina Rikardoren diskurtsoa nondik nora dator? Hori da Usurbilen egin beharko genukeen lehen

**"1996AN USURBILEN ESKAINI ZUEN DISKURTSOA ARGITARATU EGIN BEHARKO LITZATEKE"**

galdera. Zergatik dator Rikardo Arregi hona? Ba, hemen bazezgoelako kulturarekiko horrelako sentiberatasun bat.

**Euskararekiko eta kulturarekiko kezka bat.**

Rikardo Arregi etorri aurretik, baten bati okurrizten zaio Udarregi omendu egin behar dugula. Orain Rikardo Arregiren diskurtso famatuari heltzen diogu. Baina orduan bazen herrian jende multzo bat –eta ez bakarrik aipatu ohi diren bi edo hiru izen, jende gehiago ere bazen–, Udarregi omentzeko modukoa dela erabakitzen duena. Udarregi ez da Usurbilgo lehenengo bertsolaria. Lehenago ere egon dira, eta oso famatuak: Motza Zubietan, Gaztelu Aginagan... Maila handiko bertsolariak. Baina zergatik omentzen dute Udarregi? Hori da niretzako galdera klabea. Hortik abiatuta, bidaia asko sortzen dira. Bat jende multzo hura. Bi, Udarregi. Hiru, Remigio Mendiburu. Eta Remigio ez da edozein eskultore, eta Remigio aukeratzeko dute. Eta horrek halako zurrunbiloa eragin zuen.

**Remigio Mendiburuk Udarregiren omenez egindako eskulturaren inaugurazioan, hainbat ekitaldi antolatu ziren Usurbilen. Ordukoa Euskal Herriko lehen kultur astea izan zela esaten da. Ez zen izan eskulturaren inaugurazioa bakarrik. Literatura lehiaketa bat antolatu zen. Gaur egun ez da halakorik egiten Usurbilen. Ez dago horretarainoko potentzialik Usurbilen. Bai, gitarrajole asko dago, eta ez nago horren kontra. Askok gustatzen zait, eta esan dezaket ni ere mugimendu horretako parte izan naizela, neurri batean. Baina literatura lehiaketa bat? Ea non gauden gaur Usurbilen...**

Beraz, bidaia asko daude planteatzeko eta niretzako inportanteena da Udarregi alfabetatu gabea zela, eta hori da klabea. Hau dena borobiltzen duena. Eta alfa-



"Udarregik, alfabetatu gabeko pertsona batek, alfabeto bat asmatu zuen. Hau da gako inportanteena". DANI BLANCO / ARGIA CC BY SA

betatutako jendeak antolatu zuela omenaldia, puntakoa, Venezian egon zirenak...

#### 'Ikimilikiliklik' ikuskizuneko partaideez ari zara.

Bai, Artzetarrak zeuden horren oinarrian. Baina horien inguruan bazeuden 'herritar arruntak' esango genukeena, hori dena babesten ari zirenak: ekonomikoki laguntzen, antolaketan... Horiek denak jabetzen dira Udarregik, alfabetatu gabeko pertsona batek, zer nolako garrantzia zuen. Bertso munduan egin zuen ekarpenarengatik, baina baita ere Udarregik, alfabetatu gabeko pertsona batek, alfabeto propio bat asmatu zuelako. Hau da klabe inportanteena. Horrek mugitzen du

jende hau. Horrek ekartzen du Remigio Mendiburu gure artera, horrek ekartzen du Oteiza, horrek ekartzen du Rikardo Arregi...

Udarregik, halako batean, alfabeto baten premia ikusten du. Zaharra zen ordurako, eta ezin zen alfabetatu. Eta horren aurrean, bere alfabetoa asmatzen du. Eta hantxe, Artikula baserrian marrak egiten has-

**"UDARREGIK  
ALFABETO PROPIO  
BAT ASMATU ZUEN.  
HORI DA DUELA 60  
URTEKO GUZTIA  
MUGITU ZUENA"**

ten da, paretean. Bertso bat etortzen zitzaionean, hantxe apuntatzen zuen, etxeko paretean, eta bere alfabetoan.

Gero, tarteka, herriko eskribauari deitzen zion eta Artikulara hurbiltzen zen. Udarregi paretari begira jartzen zen, bertsoak abesten zituen eta eskribauak paperean jasotzen zituen. Eta horrelakorik ez dago inon, ez dago inon.

**"USURBILEN,  
ARTEAREKIKO  
JOERA 1966AN  
HASI ZEN, REMIGIO  
MENDIBURUREN  
ESKULTURAREKIN"**

Beraz, hori da duela 60 urteko guztia mugitu zuena. Maiaztaren 22an, bidaiari horiek denak egingo ditugu Sutegitik Remigio Mendibururen eskulturarako bidean.

#### Maialen Lujanbio izango duzu bidaide, eta berak ere landu du Udarregiren figura, ezta?

Sagarrondoan inguruan egiten ditugun ibilaldi horietako batean, Maialenek nirekin ezagutu zituen Udarregiren inguruko kontu hauek guztiak. Flipatu egin zuen eta ez zaio burutik atera.

Zumalakarregi museoko artxioboaren interpretazio baterako proposamena egin zioten eta aurrean aurkeztu du. Eta Maialenek berak esanda, Zumalakarregiko proposamena abiatzen da Udarregiren alfabetotik. Beraz, Maialen batez ere horretan zentratuko da. Eta ni garai horretako Usurbil irudikatzen saiatuko naiz. Garai hartako plazaren paisajea, orduko frontoia...

#### Frontoia ez zuen egungo itxura izango.

Ez zuen estalkirik. Errebote plaza zen, baina gaur egun ezin da errebotean jokatu arkitecto motz batzuen eraginez. Baina errebote plazaren arrastoak han daude oraindik, eta haiek ezagutuko ditugu. Dema plaza zer zen lehenago, hori ere kontatuko dugu. Kotxeak nola ibiltzen ziren bi kaleetan barrena, ganadua nola ibiltzen zen etxe azpitan... Ura edate-ra askatara joaten ziren, bolatokia... Horiek denak han inguruan zeuden.

Gaur egun, Zumetaren zeramikari garrantzia handia ematen diogu. Oso inportantea da baina artearekiko joera 1966an hasi zen, Remigio Mendibururen eskulturarekin. Hori izan zen germena, lehen kimua. Eta ez dago toki horretan kasualitatez. Ulertu behar da zergatik dagoen hor. Maiaztaren 22ko saioan, bidaiari horiek denak azaltzea da nire asmoa.



Jakoba Errekondo, 650 Usurbil Bizi egitasmoa dinamizatzaile Ines Azpiazu eta Usurbilgo alkate Agurtzane Solaberrieta.

# Ikus-entzunezkoak, bisita eta solasaldiak, 60. urtemugaren harira

"Euskararen eta artearen Usurbil. Rikardo Arregiren oihartzuna 60 urte geroago" ekimen zikloa antolatu du 650 Usurbil Bizi herri egitasmoak NOAUA! K.E.-rekin eta Udalarekin batera, maiatzaren 17rako eta 22rako.

## ARITZ LASARTE

Hitzorduon bidez, 1966ko maiatzaren 22an frontoi ondoan inauguraturiko Juan Jose Alkain "Udarregi" bertsolariaren omeneko Remigio Mendibururen eskultura eta testuinguru hartan eginiko kultur ekitaldien artean, Rikardo Arregik eginiko diskurtso gogoangarria oroitu dute, ospakizun haien 60. urtemugan hain zuzen. "Azkenean, 650 Usurbil Bizi egitasmoaren oinarrian, bade-lako batez ere transmisioa, zer izan den Usurbil, zer garen eta zer izan nahi dugun. Maiatzaren 22ko ekitaldiak asko du hortik, transmisioetik eta balorean jartzea, orduan, gure herrian egindako ekitaldia, Rikardo Arregi bera balioan

jartzea", baina batez ere, alkateak iragan asteko aurkezpenean nabarmendu zuenez, "euskararen eta euskal kulturaren biziberritze hartan esanguratsuak izandako pertsona horien berri ematea" egungo nahiz datozen belaunaldiei.

## Oroimenerako zikloa

Ziklo honekin, "euskara eta artea jarri nahi dugu erdigunean, elkarrekin uztartu". Izan ere, "gure ustez, 60 urte pasa diren arren, gaurkotasan handiko hitzak dira oraindik ere, are zer nolako testuinguru bizi dugun erreparatuta eta batez ere, azken bolada honetan euskarak bizi duen jazarpen, erasoaldi eta oldarraldi honi erreparatzen badiogu". Oro-

menerako zikloa izango da, besteak beste, gogora ekartzeko garai hartako "frankismo beteko giroa eta nola zentsura eta errepresio eta oztopo guztiei aurre eginez antolatu zen ekitaldi hori eta ekitaldi horren bueltako guztia". Horrekin batera, "nabarmendu ere, zenbait herritarrek, Artze anaiak edo Felix Aizpurua tarteko, nola buru-belarri inplikatu ziren omenaldi horren anto-

**"60 URTE PASA DIREN ARREN, GAURKOTASUN HANDIKO HITZAK DIRA ORAINDIK"**

lakuntzan". Txalogarritzat jo zuen alkateak garaiko herriak, "urte gogor haietan ere euskal artearen, euskararen eta orohar, kulturaren alde egindako apustu hura", bere ustez, ulergarriagoa egiten duelako egungo herri honen izaera. "Izan ere, hamarkada haietan Euskal Herrian izandako kultur ez-tandaren plaza eta lekuko izan zelako gure herria. Azpimarratzekoa da zentzu horretan, Usurbilek ere euskal kulturaren berpizkunde hura bideraturiko Ez Dok Amairu mugimendurekin izandako lotura; horren adibide, herriko biseme, Artze anaiak" eta haiekin, "mugimendu haren parte izan ziren askok ere bere arrastoa utzi dutela Usurbilen, Mikel Laboak edo Remigio Mendiburuk. Horregatik, artea ez ezik historia ere gordetzen dute gure herriko kaleek eta txokoek".

## "Euskararen eta artearen Usurbil"

### Maiatzak 17, igandea

**19:00** "Oteiza 14 apostolu" film emanaldia Sutegiko auditorioan. Segidan, solasaldia filmeko zuzendari Oskar Alegriarekin eta Jorge Oteiza Fundazioko patronatuko presidente Jaione Apalategirekin. Sarrera: 6 euro aurrez usurbilkultura.eus plataforman eta NOAUA! K.E.-ren egoitzan. 4 eurotan NOAUA!ko bazkideek, NOAUA!ren egoitzan.

### Maiatzak 22, ostirala

**18:00** "Zutik" film emanaldia Sutegiko auditorioan. Segidan, Naiz Irratiak gidaturiko solasaldia. Hizlariak: filmaren zuzendari Ainara Mendiola, Arte Ederren Fakultateko dekanok Ismael Manterola eta Euskalgintzaren Kontseiluko idazkari nagusi Idurre Eskisabel. Amaiera, Remigio Mendibururen frontoi ondoko eskulturaren parean, Maialen Lujanbiorekin eta Jakoba Errekondorekin. Gonbidapenak eskuragarri aurrez, usurbilkultura.eus plataforman.



Filmaren pasarte batzuk Remigio Mendibururen eskulturaren ondoan grabatuak izan ziren.

## "Rikardo Arregik duela 60 urte esan zituenak oso baliogarriak dira gaur egun"

AINARA MANTEROLA 'ZUTIK' FILMEKO ZUZENDARIA

Maiatzaren 22an, 'Zutik' film laburra ikus ahal izango dugu Sutegin. 1966an, Rikardo Arregik Udarregiren omenaldian eskaini zuen hitzaldi gogoangarrian oinarritzen da filma.

**IMANOL UBEDA**

**'Zutik' filma eskainiko dute maiatzaren 22an Sutegin. Nondik nora sortu zitzaizun Rikardo Arregirengana hurbiltzeko asmoa?**

Hasierako ideia Rikardoren anaia batena izan zen, Mikelena. Bere ustetan, Rikardok bere garaian egindako lana eta bere pentsamendua ez ziren behar bezala ezagutzen euskal gizartearen. Belaunaldi gazteen artean bereziki, ezezaguna zela. Maluta Filmsekin jarri zen harremanetan eta halaxe abiatu zen 'Zutik' filmaren ideia. Niri gidoia egitea proposatu zidaten. Nik kazetaritza ikasi arren, eta nire aitaren aldetik familia andoaindarra izan arren, nik neuk ere ezer gutxi ezagutzen nuen Rikardo Arregi. Gidoiarena beraz, aukera ona iruditu zitzaidan Rikardoren berri iza-

teko, eta bereziki, nondik zetorkion kazetaritza sena eta zein izan zen bere ekarpena deskubritzeko.

**Rikardo Arregik 1966an Usurbilen emandako hitzaldi gogoangarria dago 'Zutik' filmaren oinarrian. Maluta Filmsek ekoiztutako lana da, "euskaltzale andoaindarrak euskal gizartearen utzi zuen arrastoa azaltzeko xedez".**

1966an Udarregi bertsolaria-ri egin zioten omenaldian, hitza hartu zuen bazkalostean. Kultura mailan pil-pilean ziren pertsona asko zeuden bertan. Gaur taldeko artistak, Ez dok Amairukoak... Eta horietako askok ez zuten ezagutzen Rikardo Arregi. 24 urte besterik ez zituen orduantxe.

Esan beharra dago, Udarregi aspalditik hilda zegoela.

Udarregik bertsolaritzari eta euskarari egindako ekarpena nabarmentzeko antolatu zuen omenaldia Usurbilgo herriak. Baina era berean, aitzakia bat izan zen. Frankismo garaia zenez, eta garai hartan euskara eta euskal kultura debekatuta zeudenez, nolabait zirrikitu bat topatu zuten euskararen eta euskal kulturaren aldeko hainbat ekitaldi antolatzeko. Bertsolariak, abeslariak, literatura lehia-keta...

Hainbat gauza egin zituzten egun haietan. Eta tartean, noski, Udarregiren aldeko eskulturaren inaugurazioa. Inaugurazioaren egunean, bazkari bat egin zuten eta inork espero ez zuen momentu batean, Rikardo Arregi zutitu egin zen eta hitzaldi gogoangarri hura eskaini zuen. Gure

film laburrak horregatik dauka 'Zutik' izena.

**Etorkizunera begirako mezua izan zen Rikardo Arregirena. Pasarte hau da horren adierazle: "Udarregiren omenera jantzen gara, batzen gara, bat egiten dugu Udarregiren omenaldiarekin, baina ez lehengoa bizi nahian baizik eta berria ekarri nahian".**

Udarregiren bertsoak eta Udarregiren ekarpena oso ondo zeudela zioen, baina euskara ez zela bakarrik nekazaritza giroan eta baserrietan mantenduko. Garai horretarako euskal gizarte oso kaletarra zela eta gazteek zein kaleko jendeak biziberritu behar zuela euskara hori, eta auspotu behar zuela, biziraun nahi bazuen.

**Zuen lan hau ez da berria. 'Zutik' film laburra 2019an estreinatu zen. Ilusioa egingo dizu berriro proiektatzeko eskaera jasotzeak, eta are gehiago, halako ziklo batean eskaintzeak, ezta?**

Egia esan, bai. Filma aurkeztu berritan, pandemia iritsi zen. Etxean sarrerarazi gintuzten eta, alde horretatik, filma eta Rikardo Arregiren ekarpena gogora ekarri eta zabaltzen laguntzea oso pozgarria da guretzat.

Jakinda gainera, duela 60 urte esan zituenak oso baliogarriak direla gaur egun. Oso kontuan hartzekoak dira euskarari, euskal kulturari eta gure nortasunari begira. Asko zegoen egiteko eta hainbat gauza egin dira 60 urteotan, baina beste asko egiteke daude. Lana ez dela bukatu, nolabait.

**"RIKARDO ARREGIK EGINDAKO LANA ETA BERE PENSAMENDUA EZ ZIREN BEHAR BEZALA EZAGUTZEN"**

# Santueneko erdigunea eta Gure Elkartea taberna eraberritzeko egitasmoen aurkezpena

Biak ala biak maiatzaren 20an aurkeztuko ditu Udalak, 18:30etik aurrera Santueneko frontoian. "Auzotarren ekarpenak jasota idatzi dira bi aurreproiektuak", azaldu dute Udaletik.

Auzo erdiguneari dagokionean, "onartu berri den IUPI Irisgarritasun Unibertsaleko Plan Integralean, Santuenean osatutako Auzo Plana oinarri, urbanizatutako eremua eraberritzeko neurriak jaso dira, hiru fasetan gauzatzeko". Lehenengo fasea landu dute eta horren baitan, "eskubaloi pistaren eta haur parkearen ondoko errepidea kendu, espaloiak berritu eta plataforma bakarrean bateratuko da, irisgarritasun baldintzak hobetuz. Belaunaldien arteko hartu-emanak bultzatuko dituen proposamenak ere jaso ditu proiektuak".

Gure Elkartea jubilatuen bilguneko taberna eraberritzeko aurreproiektua ere idatzi du Udalak, auzoko eragileekin lankidetzan, "auzo-zain-

tzaren begiradatik tabernak nolakoa behar lukeen elkarrekin irudikatzeko". Lanketa hori Gure Elkartekoekin nahiz Santuenea Kultur Elkartekoekin iazko izandako hartuemanetatik abiatu zen. Izan ere, "agerian utzi zuten tabernaren eredu aldaketaren beharra. Horretarako, obrak egitea adostu zen, eta proiektua idatzi eta obrak esleitu bitarterako taberna kudeatzeko esleipena abiatu zuen udalak udazkenean. Esleipena ohi baino motzagoa zen, eta interesa piztu bazuen ere, azkenik hutsik gelditu zen, eta itxita dago ordutik".

## Hurbildu abian

Proiektua abenduan abiartzeko arren, gerora behin-behinean gelditu egiten behar izan



Gure Elkartea taberna eraberritzeko aurreproiektua idatzi berri du Udalak.

zutela eta orain, "lanketa komunitarioa abiatua" izan eta banakakoa hasiko duela jakinarazi du Udalak. Aginagan egin bezalaxe, beraz, Santuenean ere Hurbilduz auzo-zaintza egitasmoa martxan du Udalak, Zabalduz kooperatibarekin lankidetzan. "Arreta- eta zaintza-eredu publiko-komunitario berri-tzailea sortzeko helburuarekin, auzoetako adinekoren beharrei modu eraginkor eta

iraunkorrean erantzun nahi die proiektuak".

Hiru lan-ildo zehaztu dituzte 80 urtetik gorako Santueneako bizilagunak eta haien beharrak ezagutzeko; "beharra eta nahia izanez gero" bakoitzari egokitutako eta berarekin Bizi Planak osatzeko; eta "auzo mailako lanketa komunitarioa egin, auzoko zaintza sareak indartu edota berriak sortzeko aukera aztertzeko".

## Udal aurrekontuak hobeto aurreikusi beharra direla uste du PSE-EEK

Ohar bidez PSE-EEK beharrezkotzat jo du udal aurrekontuen aurreikuspena hobetzea. Hiru neurriok hartu beharko liratekeela dio: "aurrekontu-plangintza hobetzea, aurreikuspenak errealitate ekonomikora egokitzea eta ekitaldian zehar, kreditu-aldaketekiko mende-kotasuna murriztea".

Iazko aurrekontuen likidazioaren balorazioa plazaratu du PSE-EEK. Udalak egoera ekonomiko sendoa duela dio, "diruzaintzako soberakin handiarekin, aurreko urteetan baino 500.000 euro gehiago-

rekin eta arriskurik gabeko likidezia-posizioarekin". Halere, iazko aurrekontua "erantzukizunetik" babestu eta "askotan udalek zuzenketak egiten dituztela" jakin arren, "azken kreditu-aldaketa sei milioi eurotik gorakoa izan da".

Sozialisten esanetan, "udalaren egoera ekonomikoa ona izan arren, EH Bilduren gobernuak 6.054.838,96 euroko aldaketa onartu du Usurbilgo alkatezaren dekretu bidez. Zifra hori, sozialisten ustez, ez da batere baztergarria". Petri Romero bozeramailearen esa-

netan, "nahiz eta finantza-osasuna ona izan, aurreikusitakoaren eta gauzatutakoaren artean desoreka handiak izan dira, eta horrek kreditu-aldaketa handiak ekarri ditu".

Diru-sarrereri dagokienean, PSE-EEren esanetan, "desbideratzeak ikusten dira hainbat eremutan". Adibidez, "Zuzeneko zergetan, ez-betetzeak Jarduera Ekonomikoen gaineko Zergan eta Gainbalioetan"; "tasa eta zerbitzuetan, aurreikuspen baikorregia, batez ere urari, estolderiari eta hondakinei dagokienez. Herritarrengan eragin zuzena duena", Era berean, aurreikusitako diru-sarrerera batzuk ez dira gauzatu, eta beste ezohiko sarrera ba-

tzuek azken emaitzari eusten lagundu dute".

Iazkoa "baino zazpi puntu txikiagoa" izan da "diru-sarrerengauzatze maila, %92,80koa". PSE-EEK ondorioztatu duenez "horrek indartu egiten du aurrekontuak egiterakoan zurraro eta errealistago jokatu behar delako ideia". Tasak KPItik gora handitzea ez zela beharrezkoa dio "egungo egoera ekonomikoa kontuan hartuta". Adierazpen guztiok kontuan izanda ere, "jarrera eraikitzaile eta arduratsu batetik lan egiten jarraituko dugu kudeaketa ekonomiko zorrotzagoa, gardenagoa eta herritarren benetako beharrek inbertituagoa izan dadin".

# Jakin Jardunaldian matrikulatzeko aukera

UEU-k, Jakinek eta Usurbilgo Udalak ekainaren 18rako eta 19rako antolatu dute aurtengo Jakin Jardunaldia.

Edizio berriak "euskara esanindartzeko bidean: adierazkortasuna euskaraz lantzeko eztabaidak, gakoak eta hautuak" du izenburutzat. Usurbilgo saioen helburua, "euskara adierazkorra sortzea eta gizarteratzeko gako, irizpide eta azpiegituren inguruan pentsatzea" izango da, baita "adierazkortasuna lantzeko bideak hiztunen legimititatearekin, hizkuntza ideologiek eta hautu euskaltzaleekin elkarriketan jartzea" edota "iragan hurbileko esperientziak eta urratutako bideak ezagutzeko, gaur egunerako norabideak pentsatzeko".

## Euskararen adierazkortasuna mintzagai

Jardunaldiok "euskararen adierazkortasuna lantzeko gakoak pentsatu nahi dituenarentzat", "bere jardunearan erabiltzen

dituen hizkuntz ereduez go-goeta egin nahi duen kultur-gilearentzat" edota "euskara adierazkorrago sustatu eta gizarteratzeko bideak landu nahi dituenarentzat" zuzendua egongo da.

Euskararen eta euskaldunen adierazkortasuna mintzagai nagusi izango duen aurtengo Jakin Jardunaldia baliatu nahi dute antolatzaileek "pentsatzeko, gaur egungo Euskal Herriaren luze-zabalean eta kulturaren koadrante guztietan, zeintzuk diren euskara adierazkorra(k) lantzeko apustuen norabideak: nola probestu hortik eta hemendik-tradizioetik bezala randomkiro sortutako lagunarteetatik edo ahalduzko linguistiko-politikoetatik-jasotzea baliabideak eta esperientziak; nola lortu hiztunak baliabide horietan tre-



Matrikulatzeko epealdia dagoeneko zabalik da ueu.eus web orrialdean.

batzeko kontzientziak piztea eta bideak eskaintzea; eta nola gaurkotu eredu horiek guztiak sozializatuko dizkigun erresonantzia kutxa eraginkor bat".

Matrikulazio epealdia zabalik duzue ueu.eus webgunean.

## Aurtengo partehartzaileak:

- Agurtzane Solabarrieta Mesa.
- Aitor Bengoetxea Alkorta.
- Haritz Azurmendi Arrue.
- Miren Amuriza Plaza.
- Amaia Alvarez Uria.

- June Fernandez Casete.
- Kike Amonarriz Gorria.
- Naiara Perez Miguel.
- Leire Lison Nicuesa.
- Julia Marin Arteaga.
- Iratxe Retolaza Gutierrez.
- Garazi Arrula Ruiz.
- Gorka Bereziartua Mitxelena.
- Danele Sarriugarte Mochales.
- Lander Arretxea Bereziartua.
- Ana Sarria Muxika.
- Martin Ziarrusta Sanz.

## Ernai Usurbilek Sagardo Eguneko karpaguneko eskaintza prest du

Mikel Laboa plazan kokatuko du aurtengoan ere, Usurbil Ernai gazte antolakundeak karpagunea. Dagoeneko, bertan izango diren ekimenen egitaraua plazaratu du. Segidan duzue. Goizetik gauera, egun osoan zehar, hainbat ekimen izango dira.



Egun osorako egitaraua prestatu dute.

### 43. Sagardo Eguna Maiatzak 24, igandea

Mikel Laboa plazako karpagunean:

- 11:00 Txosna irekiera.
- Goizean zehar, talogileak eta Usurbil 1936 elkarteko enpostua.

- 13:00 Presoen aldeko topa.
- 16:00 Rukula taldearen kontzertua.
- 17:00 Gazte argazkia.
- 20:30 DJ Jotatxo.
- Antolatzailea: Ernai Usurbil.

## Usurbil KE taldeak Julen Lejardi eskubaloia kanpua antolatu du

Ekimen horren aurtengo edizioa ekainaren 22tik 26ra izango dela iragarri du Usurbil Kirol Elkartek, 09:30-12:30 artean. Lehen Hezkuntzako eta DBH 1-2 mailetakoei zuzendua egongo da. "Jarduera fisikoa eta eskubaloia modu ludiko eta dibertigarrian ezagutaraztea izango da" helburua. Antolatzaileen esanetan, "parte-hartzaileek kirol honen oinarriak landuko dituzte jolas, dinamika eta jardueraren bitartez, giro atsegin eta hezitzaile batean". Ekimenak iraungo duen egun



Ekainaren 22tik 26ra egingo da.

horietan "gonbidatu bereziren bat" agertu daitekeela iragarri dute, gazteak poztu ditzakeena. Izen-ematea zabalik dute esteka honetan: <https://forms.gle/gWvYsDbLQUuSLLUhh9>

# "Usurbil Futbol Taldea momentu oso onean dago"

Kirol taldeen serieari jarraiki Usurbil Futbol Taldeko senior mailako hiru entrenatzaileak elkarrizketatu ditugu.

## Zer moduz doa 2025-2026 denboraldia?

**Xabier Eizagirre (X.E.):** Denboraldia oso ondo doa. Nire ustez jokalariai gustura etortzen dira entrenatzera eta orokorrean giro ona daukagu.

**Mikel Zarraga (M.Z.):** Denboraldia nahiko gogor hasi zen emaitza aldetik. Gero emaitza onak lortzen hasi ginean, nahiko lasai joan da. Egia da oso ondo entrenatu dugula denboraldi guztian, oso jarrera onarekin, baina esan dizudana emaitzak hasieran gaizki eta gero hobetzen joan dira.

**Manu Muñoz (M.M.):** Talde guztien gisan bolada onak eta ez hain onak eduki ditugu, baina momentu horretan ere talde dinamika eta blokea mantentzen saiatu gara, eta azken hilabete honi ekiteko prest gaude.

## Zein helburu zenituzten?

**X.E.:** Klubaren aldetik esan ziguten beraien eskaera zela denboraldia interesgarria izatea eta ahal zen jokalariai kopu-

ru gehienekin bukatzea. Jokalarien aldetik hasieratik igotzeko borrokatzaezen helburua.

**M.Z.:** Hasiera batean helburuak partida guztiak lehiatzea zen, eta pare bat partida kenduta, uste dut lortu dugula. Saikalenari dagokionez, sekula ez gara ibili espero genuen bezain goian. Horrek, denboraldi erdia erdipurdikoa izatea ekarri du.

**M.M.:** Jubenil mailako jokalariek, zoritxarrez, ez daukate gorengo mailan jolasteko aukerarik, orduan gure taldea zubi moduko taldea da. Helburua, jendearentzat koxka handia izan ez dadin egokitzea da.

## Zein erronka dituzue hurrengo urterako?

**X.E.:** Horretarako denboraldi hau bukatu behar dugu lehenbizi.

**M.Z.:** Aurtengo emaitzak hobetzea izango da, ahal den neurrian, partida guztiak lehiatzea eta, zorte pixka batekin, lehenengoan artean amaitzea.

**M.M.:** Jubenil mailatik salto egiten dutenek aukera izan de-



Senior mailako nesken taldea.

zaten herrian bertan jolasteko, eta lagunaren artean beste urrats hori emateko aukera izatea.

## Jende aldetik zer moduz ikusten duzue kluba?

**X.E.:** Galdera partaideengatik baldin bada, nik jokalariai asko eta gogo askorekin ikusten ditut, ostiraletako umeetatik hasita talde handietaraino. Nesken atalean bereziki, gure taldean eta kadeteetan dauden bi taldeetan eta infantiletan neska pila bat dabilta. Nesken taldeetan dabilzan talde teknikoak ere goraiatu nahiko nituzke.

Bestalde, hiru klub ezberdinetan izan naiz orain arte eta Usurbilgoa da nik hiru taldeetan ezagutu dudana jende arduratsu eta fundamentuzkoena arduradunei dagokienez. Aprobetxatu nahiko nuke esateko kadeteetan neskek arazoak izan dituztela atezainak lortzeko eta animatzeko neskei atezain moduan jokatzen hasiteko. Bat, bi, hiru, Usurbil!

**M.Z.:** Klubeko kudeaketa daramatenak lana nahiko ondo egiten ari dira, baina kudeaketa daramatenak gutxi dira. Herri txikietan gertatzen dena da. Beti ere eskertuko litzateke jende gehiago animatzea kudeaketan lan egiteko.

**M.M.:** Ikustea besterik ez dago zenbat talde dauden, Futbol Eskolatik hasita ikustea zenbat mutiko eta neskatok dauden. Esango nuke hurrengo hamarkadarako jendea dagoela. Atzetik jende asko dator, batzuk gainera onak. Orokorrean, kluba momentu oso onean dagoela esango nuke.

## "KADETE MAILAN NESKEK ARAZOAK IZAN DITUZTE ATEZAINAK LORTZEKO"



Preferente mailan jolasten duen mutilen taldea.



Argazkian, Usurbil Futbol Taldeko senior mutilen taldeko partaideak.



Larunbat honetan hasiko dira final zortzirenak.

## Usurbilgo Pilota Txapelketako lehen neurketak

Uztailaren 2an, Usurbilgo jaietan jokatu den herri mailako pilota txapelketa abiatzera doala jakinarazi du Pagazpe Pilota Kirol Elkartek.

Maiatzaren 16ko eta 30eko asteburuan jokatu dira 53. edizioko final zortzirenak, ekainaren 5eko eta 12ko asteburuetan final laurdenak, ekainaren 19an finalerdiak eta, azkenik, aipatu moduan, uztailaren 2an finalak.

### Usurbilgo ordezkariak

Xabier Santxo herritarrak eta Julen Urruzola bikoteak, iazko txapeladunek ordezkatu dute udalerrri hau. Haien lehen neurketa maiatzaren 31n jokatu dute, arratsaldeko 18:00etan. Azkoitiako Oteiza-Juaristi bikotearekin lehiatu dira.

Gazteen mailako txapelketa ere jokatu da. Maila horretan Usurbilgo ordezkariak hau izango da: Aiert Aburuzak eta Aimar Alejok osaturiko bikotea.

### 53. Usurbilgo Pilota Txapelketa

#### Final zortzirenak.

#### Maiatzak 16, larunbata

- 19:00 Neurketak:  
-Olaizola-Aranguren (Errenteria).  
-Aizpuru-Aizpurua (Tolosa).

- Cestau-Erasun (Billabona).  
-Armaolea-Garmendia (Lazkao).

#### Maiatzak 17, igandea

- 18:00 Neurketak:  
-Etxeberria-Olaiz (Oiarzun).  
-Galartza-Galartza (Larraul-Burlada).

- Egiguren-Rekalde (Azpetia-Iruñea).  
-Txoperena-Goikoetxea (Leizta).

## Hitzordu erabakigarri gehiago Usurbil K.E.-k asteburuan

Euskal Ligarako igoera fasea zuten jokoan Usurbil Kirol Elkarteko kadete mutilek. Asteburuan Oiardo kiroldegian jokatu behar zituzten fase horretako hiru neurketak, hirutik hirutan nagusitu dira usurbildarrak. Asteburuan, maila horretako taldeak Espainiako Txapelketa jokatu du Iruñean. Bestalde, kadeteek bezalaxe, jubenil mutilek ere hurrengo denboraldian Euskal Ligan lehiatzeko neurketa fasea jokatu dute asteburuan Gasteizen.

### Kadete mutilen Euskal Ligako faseko emaitzak:

- Usurbil KE A 33-Baigene Corazonistas 26.
- Tolosa C.F Eskubaloia 21-Usurbil K.E. A 36.
- Usurbil K.E. A 34-Muskiz Azul M 31.

### Eskubaloi neurketak

#### Oiardo kiroldegian

#### Maiatzak 16, larunbata

- 11:30 Kadete neskek: Bilagun Usurbil K.E.-Larraioz ZKE

### Oiardo kiroldegitik kanpo Kadete mutilen Espainiako sektorea Iruñean:

#### Maiatzak 15, ostirala:

- 18:30 Anaitasuna - BM Maristas Algemesi A
- 20:30 Barca - Usurbil K.E.

#### Maiatzak 16, larunbata:

- 18:30 Anaitasuna - Usurbil K.E.
- 20:30 Barca - BM Maristas Algemesi A

#### Maiatzak 17, igandea:

- 12:00 Anaitasuna A - Barca
- 14:00 BM Maristas Algemesi A - Usurbil K.E.

### Jubenil mutilen Euskal Ligarako igoera fasea Gasteizen:

#### Maiatzak 15, ostirala:

- 18:00 Muskiz - Tolosa
- 19:45 Usurbil K.E. - Corazonistas

#### Maiatzak 16, larunbata:

- 16:30 Tolosa - Usurbil K.E.
- 18:00 Muskiz - Corazonistas

#### Maiatzak 17, igandea:

- 10:30 Usurbil K.E. - Muskiz
- 12:15 Corazonistas - Tolosa

## Usurbil, Herriarteko Txapelketari ekiteko prest

Final hamaseirenak jokatu ondoren, Gipuzkoako Herriarteko Pilota Txapelketako final zortzirenen txanda datozen bi asteburuotan. Usurbil Eibarrekin lehiatuko da. Joaneko neurketak asteburu honetan jokatu dira Eibarren. Itzulerakoak, Usurbilen.

### "Etorri animatzera"

Pagazpetik aditzera eman dutenez, "igande honetan, arratsaldeko 16:30ean Eibarko Astelena pilotalekuan izango gara. Jendea animatzera joan dadin deia egin nahi dugu elkartetik, itzulerarako emaitza ona ekar dezagun joanekoan".

**ARANKA BERRIKUNTZAK**  
 · Fatxaden estaldurak · Estalkien berriztatzeak  
 · Barruko berrikuntzak · Gremioen koordinaketa  
 · Igeltseritza orokorra  
**606 37 21 05 USURBIL**

**Zuen iragarkia hemen**  
 publizitatea@noaua.eus  
 747-486-835

**Uraitz, s.l.**  
 Igeltseritza Orokorra  
**693 059 392**  
 uraitz@uraitz.com USURBIL

**ZENDOIA ENEA** taberna  
 Kale Nagusia 35, Usurbil

# "Badator urteko egun desiratuena, Sagardo Eguna!"

Atzerako kontaketa abiarazia dute Usurbilgo Sagardo Egunaren Lagunak taldekoek.

Izan ere, badator, gerturazten ari da herri honen urteko jaialdi nagusietakoa den Sagardo Eguna. Maiatzaren 24an ospatuko da 43. edizioa. Ordurako prest dute jada antolatzaileek, egitaraua eta kartela. "Badator urteko egun desiratuena!", jakinarazi dute sare sozialen bidez. Ondorioz, "atzerako kontaketaekin hasi gara" nabarmendu dute.

## Auzolanerako deia

Maiatzaren 24rako antolaturiko ekintzetan parte hartzeko gonbita egin dute Usurbilgo Sagardo Egunaren Lagunak taldeko kideek.

"Animatu egunean zeharrekoko ekintzetara gerturatzera, giro paregabea izango dugu eta!". Horrez gain, auzolanerako deia egin dute. Botatzaile gisa nahiz prestaketa lanetan parte hartzeko gonbita egin dute.

## 43. Sagardo Eguna

### Maiatzak 24, igandea

- 11:00 Botatzaileen argazkia.
- 11:30 Sagardo Egunaren irekiera. Baserriko zein sagardotegietako sagardoa dastatzeko aukera. Horrez gain, pintxo aukera zabala.



Astebete bakarrik falta da sagardo festarako.

- 15:00 Botatzaileen bazkaria Udarregi ikastolan.
- 17:30-20:00 "Joseto Ta Alayak" Elektrotxarangarekin kalejira.

- Oharra: 18:00-23:00 Emaginaren gunea martxan izango da. Antolatzailea: Usurbilgo Sagardo Egunaren Lagunak.

## Udako oporren aurreko azken ekitaldiak udal liburutegian

Uda aurretik antolaturiko azken ekintzen berri eman du Sutegi udal liburutegiak:

### Udaberria liburutegian

#### Maiatzak 23, larunbata

- 11:30 Ana Merinok bideraturiko idazketa tailerra (gaztelaniaz).
- Iraupena: ordu eta erdi.

#### Ekainak 1, astelehena

- 16:00 "Sormena partekatuz", Usurbilgo irakurle gazteen topaketa Yolanda Arrietarekin. "Urtean zehar gazte(txo)en solasaldietan parte hartzen duten kideen topaketa; plana tentagarri iruditzen zaion edonori irekia".
- Iraupena: ordubete inguru.



Karmele Mitxelena nobela berria aztertuko dute ekainaren 2an.

#### Ekainak 2, asteartea

- 18:30 Alaine Agirrek bideraturiko solasaldia Karmele Mitxelena "Zoriona, edo antzeko zerbait" liburuaren bueltan. "Sutegi Liburutegian jada eskuragarri daude aipatu liburuaren hainbat ale, saioan parte hartzeko liburuak alde aurretik irakurtzea komeni baita".

## Lanbide Heziketan aurrematrikulazioa osatzeko garaia

Aurrematrikulatzeko epeak maiatzaren 22ra arte iraungo du.

### Zubietako Lanbide Eskola

Zubietako Lanbide Eskolak erdi eta goi mailako zikloak eskaintzen ditu, eta horiekin batera, espezializazioak edota ikastaroak. Harremanetarako:

- 943 364 600
- lhusurbil.eus

### Atalluko Oinarrizko Lanbide Heziketa

Atalluko Lanbide Heziketak ile-apainketa eta estetika zein sukaldaritza eta jatetxe titulua eskuratzeko ikasketak eskaintzen ditu. Informazio gehiagorako: 943 360 465

- lhi@usurbil.eus
- olh.usurbil.eus

## 50 urteak ospatzera doa Zubietako Lanbide Eskola

Iazko ekaina amaieran ospatzen hasitako mende Erdiko ibilbidea jaialdi batekin borobildu asmo du Zubietako Lanbide Eskolak, maiatzaren 30ean. Zubietako Herri Batzararekin edota Zubietako Jai Batzordearekin lankidetzan osaturiko egitarau osoa laster plazaratzekotan diren arren, dagoeneko eskolako atzoko eta egungo komunitatea elkartu nahi duen bazkaria antolatu dute, maiatzaren 30ean, 14:30ean Zubietako frontoian. Menua: sarrerakoak, paella mistoa edo begetala, postrea eta kafea. Txartelak salgai dituzue dagoeneko ikastetxean bertan, baita Alamandegian zein Bordatxo tabernetan ere; 25 euroren truke langileentzat, 20 eurotan langabeentzat.

## MERKATU TXIKIA

## ETXEBIZITZAK

## ALOKAIRUAN

Usurbilgo hiru gazte alokairuko etxe baten bila gabiltza. Etxebizitzaren inguruko edozein informazio izanez gero, eskertuko genizueke gurekin harremanetan jartzea: 688 643 044

Usurbilen edo inguruetan alokairuan gela edo etxe txiki baten bila nabil. Pertsona bakarra eta diru sarrera finkoekin. 943498917 (9:30-13:30).

25 urteko gazte bat naiz eta inguruko enpresa batean lanean nago. Logela bat alokatu nahiko nuke. 647594529

Gela edo apartamentu txiki bat alokatu nahi dut. 24 urte, Isaac. 673607486.

Alokairuan hartzeko etxe edo logela baten bila nabil. 618 773 004.

## EROSI

Usurbilgo erdigunean etxe bat erosi nahiko nuke. Ahal dela bi logelakoa. 615007418

## IRAGARKIA JARTZEKO:

NOAUA:IKO BULEGOTIK PASA

ERREDAKZIOA@NOAUA.EUS

943 360 321

- Asteleheneko 12:00ak arte jasotako iragarkiak bakarrik iragarriko ditugu.
- Iragarki berriak sartu ahala, zaharrak ezabatuko ditugu.
- NOAUAK ez du argitaratzen diren iragarkien ondorioz sor daitezkeen operazioen erantzukizunik.

## GARAJEAK

## SALMENTA, GARAJEAK

Garajea salgai Etxealdian. 14 metro koadro. 685707278

Garaje itxia salgai herri sarreran. 646 601 947 (18:00etatik aurrera).

## LANPOSTUAK

## LAN ESKAINTZAK

Aginaga sagardotegian asteburuetarako zerbitzari bila gabiltza: 943 37 06 68 / info@aginagahotela.com

Andatza taberna sukaldari laguntzaile bila dabil. 627841927.

## LANPOSTUAK

## LAN ESKAERAK

Adineko pertsonak zaintzeko edo garbiketa lanak egiteko eskaintzen dut nire burua. Harremanetarako: 747 446 091.

Lan bila nabil. Edozein lanetan aritzeko prest. 611 22 94 65.

Lan bila nabil. Lanerako gogotsu. 677 257 929.

Garbiketa lanak, haur zein pertsona helduen zaintza lanetan aritzeko lan bila dabilen neska bat naiz. 604302785

Garbiketa arloan edo pertsona helduak zaintzeko prest. Titulu sozio-sanitarioa daukat. 627879720.

Externa zein interna bezala lan egiteko prest. Edo garbiketa lanak egiteko. 676 282 206.

Sukaldeko laguntzaile lanetan edo pertsona helduak zaintzeko lan bila nabil. 688676540

## BESTELAKOAK

Reiki saioak eskaintzen ditut. Harremanetarako: 677086147.

Klase partikularrak emateko prest DBH 1-3 arteko nahiz LH-ko ikasleei. 628 57 28 04.

## Pilota partida ugari jokatuko dira egunotan

## Usurbilgo Txapelketa, gazteak:

Maiatzak 13 asteazkena, 20:00

-Pagazpe (Aburuza-Alejo)  
-Tolosa (Karrera-Caminos)

-Azkoitiako Oteiza/Abantzu (Arregi-Zabala)  
-Behar Zana (Zufiria-Cestau)

## Usurbilgo Txapelketa, nagusiak:

Maiatzak 15 ostirala, 19:00

-Rekalde-Erasti (Oberena-Pagazpe)  
-Txoperena-Goikoetxea (Leitza)

Maiatzak 16 larunbata, 18:00

-Olaizola-Aranguren (Eple)  
-Altuna-Etxeberria (Tolosa)

-Cestau-Erasun (Behar Zana)  
-Armaolea-Garmendia (Lapke)

-Etxeberria-Olaiz (Oiarpe)  
-Galartza-Galartza (Larraun)

## Gipuzkoako txapelketa:

Maiatzak 16 larunbata, 20:30

Jubenil 1. mailan, lau t'erdian:

-Pagazpe (Erasti)  
-Tolosa

Maiatzak 15 ostirala, 18:00

Infantilak 3. mailan binaka:

-Pagazpe 2  
-Mundarro

Maiatzak 16, larunbata

Kadete 2. mailan, lau t'erdiko txapelketa:

-Pagazpe (Alejo E.)  
-Bergara (Muruamendiaraz)

## HILDAKOAK



**Andres Aranzacastroqui Beldarrain**

Maiatzaren 10ean hil zen, 91 urterekin.

## TELEFONO INTERESGARRIAK

Udala	943 371 951	Gure Pakea Egoitza	688 836 728
Atez ateko bulegoa	900 776 776	Gure Elkartea Egoitza	686 554 145
Udaltzaingoa	943 361 112	Arrate Zahar Egoitza	692 898 492
Egurtzegi	943 300 563	Salbatore Parrokia	943 361 239
Gizarte Zerbitzuak	943 377 110	Korreos - posta zerbitzua	943 362 894
Bake Epaitegia	943 372 336	Anbulategia	943 362 013
Oiardo Kirolegia	943 372 498	Amenabar botika	943 376 076
Sutegi Udal Liburutegia	943 360 692	Iturralde botika	943 363 395
Potxoenea	943 371 999	DYA	943 464 622
Kzgunea	943 023 684	Gurutze Gorria	943 272 222
Zumarte Musika Eskola	943 371 594	Emergentziak	112
Etumeta AEK euskaltegia	607 609 379	Genero-indarkeria, arreta	016
Emakumeen Etxea	943 377 112	Gonzalez Ehorztetxea	943 362 163

## Igeldoko Kontsumo Kooperatibaren lan deialdia

Igeldoko Kontsumo Kooperatibak dendako arduradunabehar du. "Merkataritza, administrazioa, enpresa-kudeaketa edo antzeko arloko prestakuntza izatea eskatzen da. Lanaldi osoko kontratua litzateke (astelehenetik larunbatera txandaka). Bidali Curriculum-a maiatzaren 20a baino lehen igeldokoop@gmail.com helbidera".

## Manifestazioa, LBTBIQ+ fobiaren aurkako egunean

Igande honetan, hilak 17, "eskualde mailako manifestazioa deitu dugu Buruntzaldeko transmarribolloek Hernanin, eguerdiko 12:00etan". LBTBIQ+ fobiaren aurkako nazioarteko egunarekin bat egingo du deialdiak. 12:00etan abiatuko dira Plaza Berritik eta ondoren, Tiloetan "marianitada", Anuk eta Elenek girtotua.

# AGENDA

EMAIGUZUE ZUEN EKITALDIEN BERRI ASTELEHEN EGUERDIA BAINO LEHEN. Tel.: 943 360 321 / erredakzioa@noaua.eus

## OSTIRALA 15

**USURBIL San Ixidro eguneko ospakizunak**

10:00-14:30 Frontoian eta Dema plazan.

## LARUNBATA 16

**KALEZAR Txirikordaren bigarren urtemuga festa**

Txokolate jatea, buruhandiak, toka txapelketa, zuzeneko musika...

17:00 Ugartondoko Txirikordan.

## IGANDEA 17

**USURBIL Emakume Master Cup-a**

Emakumezkoen eskuzko pilota partida profesionalak ikusteko aukera.

12:00 frontoian.

**USURBIL Itzulia-Women txirrindularien lasterketa**

Ibilgailuen joan-etorriarako eten egingo da etapa Usurbildik igaroko den unean.

12:40 Usurbilen, eta gero Aginagarantz joango da tropela.

**USURBIL Euskararen eta artearen Usurbil: Rikardo Arregiren oihartzuna**

"Oteiza 14 apostolu" filmaren proiektzioa eta solasaldia.

19:00 Sutegin.



Frontoian eta Dema plazan egingo dira ospakizunak.

## San Ixidro eguna ospatuko da ostiralean

Alkartasuna Kooperatibak ospakizun goiza antolatu du ostiral honetarako:

**San Ixidro Eguna**

- 10:00 Esnadeia herrian zehar Ostolaza eta Larrañagarekin.
- 11:30 Hamaiketako herrikoia plazan.
- 12:00 Bertsolariak: Ane Labaka eta Beñat Gaztelumendi.

- 12:30 Giza proba binaka: Iurgi Mendiluze, Imanol Zaldúa, Gabriel Sarasola eta Iñaki Portularrume.
- 14:30 Bertso-trikiti bazkaria Patri jatetxean (bazkarirako txartelak salgai Patrin eta Alkartasunan).
- Antolatzailea: Alkartasuna Baserritarren Kooperatiba.
- Laguntzailea: Udala.

### Itzulia Women, gure artetik

Itzulia-Women lasterketako azken etapa gure artetik igaroko da igande honetan, maiatzaren 17an, eguerdi partean. Errekaldetik Txikierdi aldera sartuko dira txirrindulariak N634 errepidean. Usurbil (12:30ak pasatxoan) eta Aginaga (12:45ak pasatxoan) zeharkatuko ditu gero bide beretik, Mendizorroztz aldera jo aurretik. Tarte horretan N634 errepidea eten egingo da ibilgailuen joan-etorriarako.

## Bisita gidatuak

**Maiatzak 15, ostirala**

- 19:00 "Oteiza 14 apostolu" film emanaldia. Segidan, solasaldia Oskar Alegria zine zuzendariarekin eta Jaione Apalategirekin (Oteiza fundazioa).

Sarrerak: 6 eurotan aurrez usurbilkultura.eus edo NOAUA!-ren egoitzan. NOAUA! K.E.-ko bazkideek 4 eurotan, kultur elkar-tearen egoitzan.

**Maiatzak 16, larunbata**

- 11:00-12:30 Salvatore Elizara bisita, organo erakustaldiarekin (gazteleraz).

**Maiatzak 22, ostirala**

- 18:00 "Zutik" film emanaldia Sutegin. Segidan, Naiz Irratiak zuzenean gidatutako solasaldia.

Itxiera, Remigio Mendibururen eskulturaren emango zaio. Parte-hartzaileak: Maialen Lujanbio eta Jakoba Errekondo. Sarrerak: gonbidapenak doan, usurbilkultura.eus plataforman.

**Informazioa, erreserbak:**

650usurbilbizi.eus

ARRANDEGIA  
**PELLO**  
9:00-13:30  
ASTEARTETIK LARUNBATERA  
PUNTAPAX 7, 650 31 31 91

ZUEN PUBLIZITATEA HEMEN  
**943 360 321**  
noaua@publizitatea.eus

**TXAPELDUN**  
ARDANGELA  
  
PLATERAK  
OGITARTEKOAK  
RAZIOAK  
ARROZAK  
OILASKO ERREA  
Muna Iurra 2, 943 49 88 83

# Euskararen eta artearen Usurbil

Rikardo Arregiren oihartzuna, 60 urte geroago

## DATA ALDAKETA:

**Maiatzak 17, 19:00 Sutejin**

Film emanaldia: "Oteiza 14 apostolu"

Solasaldia: Oskar Alegria (filmaren zuzendaria) eta Jaione Apalategi (Jorge Oteiza Fundazioko patronatuko presidentea)

Sarrerak (6 €\*): [usurbilkultura.eus](http://usurbilkultura.eus)  
\*4 € Noaua!-ko bazkideentzat

**Maiatzak 22, 18:00 Sutejin**

Film emanaldia: "Zutik"

Naiz Irratiak zuzenean gidatutako solasaldia: Ainara Mendiola (filmaren zuzendaria), Ismael Manterola (Arte Ederren Fakultateko dekanoa) eta Idurre Eskisabel (Euskalgintzaren Kontseiluko idazkari nagusia)

Itxiera, Remigio Mendibururen eskulturaren: Maialen Lujanbio eta Jakoba Errekondo

Gonbidapenak: [usurbilkultura.eus](http://usurbilkultura.eus)



## NOAUA!k UDALEKU IREKIETAN aritzeko HEZITZAILE eta ZUZENDARI lan poltsa DEIALDIA

LEHENETSIKO DA:  
- Begirale  
edo zuzendari titulua izatea  
- EGA izatea  
- Usurbildarra izatea

### Interesatuak:

Curriculum-ak ekarri edo bidali:

Noaua! Kultur Elkarte  
Bordaberri 3, Usurbil edo  
[elkartea@noaua.eus](mailto:elkartea@noaua.eus)

• Sexu delituen ziurtagiri eguneratua bidali

Curriculum-arekin batera  
bidaltzeko azken eguna: MAIATZAK 15

noaua



# ZIRIMARA 2026/27

Jolas hezi programa, psikomotrizitatea, natur jarduerak, aurre-kirolak, kirola, saio bereziak, famili planak. Izen ematea burutzeko ordainketa egin behar da Ikastolan **ES60 3008 0259 14 2084813324** kontu korrontean.

## Oharrak:

- Eskola Kirolean parte hartzeko derrigorrezkoa da Oiardo Kiroldegiko bazkide izatea. Horretarako abono mota desberdinak daude: Kirol txartela, abonu familiarra... Informazio gehiagorako galdetu Oiardo kiroldegiko harreran.
- Kiroldegirako abonamendurako hobariak eta eskolaz kanpoko kirol jardueratan aritzeko diru laguntzak ere badaude. Informazioa udal webgunean eta kiroldegian.

## ATE IREKIAK

### ZIRIMARA KAXKOAN

- Maiatzak 12 (16:30 - 18:30) HH5 / LH 1
- Maiatzak 14 (16:30 - 18:30) LH 2 / 3

### ZIRIMARA AGINAGA

- Maiatzak 11 (16:30 - 18:00)

### ZIRIMARA ZUBIETA

- Maiatzak 13 (16:45 - 18:15)

### ZIRIMARA FAMILIAN

- Maiatzak 19 (17:00 - 18:00) (0 - 6 urte)

### ZIRIMARA MULTIKIROLA

- Maiatzak 11 (16:30 - 18:30) LH 4 / 5

## 26/27 IKASTURTEKO ESKAINTZA

**Iraupena:** Urriak 1etik maiatzaren 30era.

### Urteko kuota:

- LH1 - 2 - FAMILIAN: 30€
- LH3 - 4 - MULTIKIROLA: 60€

### Ordutegia:

ERDIGUNEAN LH 1 / 2: Astearteetan 16:30 - 18:30  
ERDIGUNEAN LH 3 / 4: Ostegunetan 16:30 - 18:30  
AGINAGAn LH 1 / 6: Astelehenetan 16:30 - 18:00  
ZUBIETAn LH1 / 6: Asteazkenetan 16:45 - 18:15

### ZIRIMARA FAMILIAN (0 - 6 urte)

- Astearteetan izango da saioa (17:00 - 18:00)

### ZIRIMARA MULTI (LH 5 / 6)

- Astelehenetan izango da saioa (16:30 - 18:30)

**IZEN EMATEA DATA:  
MAIATZAK 14-24**

